



**2023KO IRAILAREN 25EKO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita hiruko irailaren 25ean, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide, Joxemai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztu da 2023ko irailaren 11an egindako ohiko bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartu delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren, Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira.

Fakturak aztertu ondoren, 2023ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 66 zenbakidun fakturen zerrenda, HIRUROGEITA BOST MILA SEIEHUN ETA HAMAZAZPI euro ETA HOGEITA HAMASEI zentimokoa (65.617,36 €), bere espedientean dagoena, onartzea erabaki da.

III.- GURUTZE KALEAN KOMUN KABINA BAT HORNITU ETA INSTALATZEAREN 1. OBRA EGIAZTAGIRIA (LIKIDAZIOA).-

Lazkaoko Udaleko arkitekto teknikoak, Gurutze kalean komun-kabina bat hornitzeko eta instalatzeko lanen lehen obra egiaztatzea eta bakarra egin du. Obra egiaztatzearen zenbatekoa BERROGEITA HAMABI MILA BEDERATZIREHUN ETA BERROGEI euro ETA HIRUROGEITA HAMALAU zentimo (52.940,74 €) gehi BEZari dagokion HAMAIIKA MILA EHUN ETA HAMAZAZPI euro ETA BERROGEITA HAMASEI zentimo (11.117,56 €) da, guztira HIRUROGEITA LAU MILA ETA BERROGEITA HEMEZORTZI euro ETA HOGEITA HAMAR zentimo (64.058,30 €).

Hornidura eta instalakuntza lanak Lorke Systems S.L. enpresak burutu ditu.

Tokiko Gobernu Batzarrek, gaia aztertu ondoren, obra egiaztatzeari hau aho batez onartu du.

IV.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:



Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 22-11-12 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzuan baja ematea 2023ko irailaren 5etik, onuradunak eskatuta.
- 22-11-05 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzua handitzea 2023ko abuztuaren 2tik aurrera, astean 2 orduetik 6 ordura, onuradunen osasun egoera okertu delako. Onuradunen ekarpena % 35ekoa izango da.
- 22-11-09 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzuan baja ematea 2023ko abuztuaren 11tik, onuradunak eskatuta.
- 21-11-02 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzua handitzea 2023ko uztailaren 14tik aurrera, astean 2 orduetik 6 ordura, onuradunen osasun egoera okertu delako. Onuradunen ekarpena % 61ekoa izango da.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 23-01-013 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 100 €-ko dirulaguntza ematea irailetik abendura eta alokairu gastuetarako hilean 250 €-ko dirulaguntza ematea irailetik abendura. Eman daitekeenaren % 100 da.
- 23-01-015 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 130,50 €-ko dirulaguntza ematea irailetik abendura. Eman daitekeenaren % 87 da.
- 23-01-012 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 150 €-ko dirulaguntza ematea irailetik abendura. Eman daitekeenaren % 100 da.
- 23-01-014 zenbakidun esped.: lehen mailako premietarako hilean 100 €-ko dirulaguntza ematea irailetik abendura. Eman daitekeenaren % 100 da.

Esku-hartze proposamena.-

- 23-15-05 zenbakidun esped.: hasierako ikerketa eta ebaluazio txostena egiteko eskaera bajaran ematea, familia herriz aldatu delako.

Iparra Hegoa Programa.-

2023. urteko Iparra - Hegoa Lankidetzeta Programari dagokion dirua modu honetan banatzea proposatzen du Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak:

1. **DONOSTIAKO ELIZBARRUTIKO MISIO ORDEZKARITZA.** RWANDARWEJOKO EGITASMOAN GIHARAKO ESKOLETAKO JANGELAK MAHAIZ ETA AULKIZ HORNITZEKO ETA OSASUN ETXEKO TEILATUAREN KONPONKETA EGITEKO (AFRIKA). **16.000 €.**



2. **ONG TAUPADAK.** EDATEKO URA ETA OINARRIZKO SANEAMENDUA AMA HAURREN HERIOTZA EZABATZEKO (BOLIBIA). **5.500 €.**
3. **ACTIVOS POR UN MUNDO SOLIDARIO.** "GUK ERE EGIN DEZAKEGU" PROGRAMA INDARTZEA, BALIABIDEAK INDARTZEKO. (NIKARAGUA). **5.000 €**
4. **HERRIAK ELKARLANEAN.** MARBIAL ESKOLA POLITEKNIKOAREN ERAIKUNTZARAKO (HAITI). **5.500 €.**
5. **ABAY EUSKADI.** HAURREN BIZI KALITATEA HOBETZEKO, HEZKUNTZA GOIZTIARRA ETA NUTRIZIO OREKATUA ESKURATUZ (ETIOPIA). **2.500 €.**
6. **LANKIDETZARAKO INGENIERITZA.** POBREZIAREN AURKAKO BORROKA HEZKUNTZAREN ETA OSASUNAREN BIDEZ (AFRIKA). **1.500 €.**

V.- KULTURA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Kultura Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

Lazkaoko herritarrei eta Euskal Aker taldeari.-

Lazkaoko herritarrek eta Euskal Aker Taldeak Unai Dominguezen omenez ekitaldi ezberdinez osatutako eguna antolatzeagatik 1.000 €-ko dirulaguntza ematea erabaki da, Kultura Batzordeak proposatuta.

Dirulaguntza hau aurrekontuaren 1 480.03.338.00 partidatik ordainduko da.

- Antzar konpartsa, Lazkaoko erraldoi eta buruhandi elkarte taldea.-

Talde hau eta udalaren artean izenpetu zen hitzarmenean, talde honentzako egitura garatzeko eta bere ekintzak burutzeko, 5.000 €ko dirulaguntza aurreikusi zen.

Ekainaren 5eko Gobernu Batzordean, ordaintzeko falta zen %40aren erdia, hau da 1.000 €, ordaintzea onartu zen. Orain, falta den beste erdia, hau da, 1.000 € ordaintzea onartu da.

Diru laguntza 2023ko aurrekontuaren 481.10.334.00 partidatik ordainduko da.

VI. EKONOMIA SUSTAPENA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Lazkaoko merkataritzaren sustapenerako Lazkaoko Udalak 2023ko udazkeneko plangintzaren barnean erosketa bonoen kanpaina antolatzeko proposamena egin du Ekonomia Sustapeneko batzordeak, eta horretarako kanpainaren oinarriak eta deialdia aurkeztu ditu beren onarpenerako.

Proposamenari erantsitako kanpainaren deialdiaren ezaugarri nagusienak ondorengoak dira:

- Epea: urriaren 23tik azaroaren 30era.
- Kopurua: 2.000 bono jarriko dira salgai, 30 eurotan erosi eta 40 euroko erosketa ahalmena emango dute (10 euro hauek Udalaren diru-laguntza izango da).
- Merkatariek bonoak jasoko dituzte beraien saltokietan eta ondoren Udalera ekarriko dituzte Udalak dagokien ordainketa egiteko.
- Gastua: 20.000 €, aurrekontuaren 1 471.02.433.01 partidatik ordainduko da.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia azertu ondoren eta idazketa aldaketa batzuk eginda, aho batez, merkataritzaren sustapenerako 2023ko udazkeneko bonoen kanpainaren oinarriak eta deialdia onartzea erabaki du.

VII- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Ez da galdera edota erregurik egon.

VIII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko bostak eta berrogeita hamar direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

